

Baldintza Espezifikoak Generation kWh tarifa osagarria

SOM ENERGIA, SCCL kooperatibako bazkideek iturri berriztagarrietatik datorren energia sortzeko instalazioak finantzatzeko maileguak (aurrerantzean, "**Generation kWh Maileguak**") sinatu ditzakete Kooperatibarekin.

Generation kWh Maileguak, maileguan emandako zenbatekoaren arabera, SOM ENERGIA, SCCLk bere sorkuntza-instalazioen bitartez ekoizten duen energia elektrikoaren baliokidea den energia elektrikoa Generation kWh proiektuari lotutako energia elektrikoa ekoizteko SOM ENERGIA, SCCLren instalazioen sorkuntza-kostuen arabera prezioan kontsumitzeko aukera ematen du.

Prezio hori **Generation kWh Prezioa** deitzen da, eta aldatu egiten da hornidura-puntuari aplikatzekoa zaion tarifa-segmentuaren arabera (www.somenergia.coop/eu/tarifak-argia/etxea-generationkwh).

Generation kWh Prezioa titular gisa bazkide mailegu-emailea edo hirugarren bat duen hornidura elektriko kontratu bati aplikatu ahalko zaio, baldin eta Generation kWh Mailegu-kontratuan ezarritako baldintzak betetzen badira. Aurrerantzean, "**Generation kWh Prezioaren onuraduna**".

1. DEFINIZIOAK

Dokumentu honetan letra larriz jasotzen diren termino guztiak bertan definitzen diren moduan interpretatuko dira eta, definituta egon ezean, Kontratugileak eta SOM ENERGIA, SCCLk sinatutako energia elektrikoko Hornidura Kontratuan definitzen diren moduan interpretatuko dira.

2. XEDEA

Kontratugilea **Generation kWh Prezioaren onuraduna** da, Generation kWh mailegu bati jarraikiz, eta adierazi du bere Hornidura Kontratuari Generation kWh Prezioa aplikatzea nahi duela. Hornidura Kontratuari lotutako Generation kWh Mailegu-kontratuaren erreferentzia Baldintza Partikularretan jasotzen da.

Dokumentu honen xedea da, Generation kWh Prezioaren aplikazioaren ondorioz, Hornidura Kontratuan adostutako baldintzen (**Baldintza Espezifikokoak**) aplikazioa egokitzea. Generation kWh prezioa behean azaltzen den moduan kalkulatzeko da, eta ez du aurrezkirik bermatzen Som Energiak aplikatzen dituen gainerako tarifekin alderatuta.

Hala, Generation kWh Prezioaren Baldintza Espezifiko hauek Hornidura Kontratutik banaezinak dira, eta haien edukiak lehentasuna izango du Baldintza Orokorrek xedatzen dutenaren aldean. Kontratugileak Hornidura Kontratuaren osagarri den produktu bat baino gehiago kontratatatu badu, eta Baldintza Espezifikoak ez badatoz bat, arestikoenak izango du lehentasuna. Nolanahi ere, **Generation kWh Prezioak** lehentasuna izango du kontratatutako beste edozein tarifaren aldean.

3. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA

3.1. Baldintza Espezifiko hauek indarrean sartuko dira bertan ezarritako datan, baina haiek indarrean egotea Hornidura Kontratua eta Generation kWh Mailegu-kontratua indarrean egotearen mende dago.

3.2. Era berean, Hornidura Kontratua edo Generation kWh Mailegu-kontratua edozein arrazoi dela bide baliogabetzen bada, Baldintza Espezifiko hauek automatikoki baliogabetuko dira, Generation kWh Prezioa kontratatatu ahal izateko, funtsezko betekizuna baita kontratu horiek indarrean egotea.

3.3. Dena den, Generation kWh Prezioaren kontratazioak ez dakar gutxieneko iraupen-konpromisorik; hortaz, Kontratugileak Generation kWh Prezioaren kontratazioa edozein unetan baliogabetu ahalko du. Horretarako, bere asmoa SOM ENERGIA, SCCLri

idatziz jakinarazi beharko dio, mezu elektroniko bat generationkwh@somenergia.coop helbidera bidaliz edo Bulego Birtualean GENERATION KWH modalitateko kontratuaren baja eskatuz.

3.4. Era berean, SOM ENERGIA SCCLk edozein unetan baliogabetu ahalko du, alde bakarrez, Generation kWh Prezioaren aplikazioa, hogeita hamar (30) egun naturaleko aurreabisua emanaz.

4. “PREZIOA ETA EGUNERATZEA” IZENKO 5. KLAUSULAREN EGOKITZAPENA

Alderdiek adosten dute Hornidura Kontratuko 5.1. klausula aldatzea eta 5.4. iii atala gehitzea, eta 5.7 atala sartzeari, zeinak honela idatzita geratuko baitira:

5.1 Kontratugileak SOM ENERGIA, SCCLri kontratazioa egitean aukeratzen duen eta Baldintza Partikularretan jasotzen den tarifaren arabera aplikatzekoa den elektrizitate-horniduraren prezioa ordaindu beharko dio, unean-unean indarrean dagoen tasaren arabera aplikatzekoak diren zergak barne, eta baita legeak ezarritako ondare-prestazioak edota bestelakoak ere. Era berean, prezioan sartuko dira Red Eléctricak sistema elektrikoa doitzeko emandako zerbitzuei lotutako kostuak, edo unean-unean kostu horiek ordeztzen edo aldatzen dituen kontzeptua, indarreko araudiaren arabera aplikatzekoak diren baldintzetan. Kostu horiek ez dira fakturako energia-terminoan sartuko; aitzitik, bananduta edo behar bezala banakatuta jasanaraziko dira, unean-unean aplikatzekoa den araudiaren arabera. Generation kWh tarifak eta tarifa indexatuak kointziditzen duten fakturretan, Generation kWh proiektuko kWh-ei dagozkien sistema doitzeko zerbitzuak fakturazio-aldian zehar REEek izan duen batez besteko prezioaren arabera fakturatuko dira. Kontratugileak kontratatzeko unean edo a posteriori eskatzen badu, goiko kopuruari SOM ENERGIA, SCCLri kooperatiba gisa garatzen laguntzeko borondatezko dohainaren zenbatekoa gehituko zaio.

5.4.(iii) Errektore Kontseiluak urtero eguneratuko du Administrazioak arautzen ez duen Generation kWh Prezioaren zatia, SOM ENERGIA, SCCLren Batzarrak hartzen dituen erabakien eremuan. Aldaketa horiek Kontratugileari jakinaraziko zaizkio, aldaketak aplikatzen hasi baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago. Eta, aldaketek prezioaren igoera badakarte, Kontratugileak Kontratua indargabetu ahalko du, komunikazioa jaso ondorengo hamabost (15) egun naturaleko epean, SOM ENERGIA, SCCLri bere asmoa jakinaraziz, Kontratu honetan adierazitako

edozein baliabide erabilita. Kontratugileak Kontratua epe horren barruan indargabetzen ez badu, ulertuko da aldaketa onartzen duela.

5.7 Generation kWh Prezioaren aplikazioa:

- a) Alderdiek adosten dute Generation kWh Prezioa fakturaren zati aldagarriko energia-kontzeptuari aplikatuko zaiola, esleitutako akzio energetikoen kopuruaren arabera, eta kontsumitutako gainerako energiari 5.1. atalean zehaztutako tarifa aplikatuko zaiola. Generation kWh Prezioak ez die eragingo fakturako gainerako kontzeptuei (bidesariak, ordainketa aratuak, tasak, eta abar).
- b) Akzio energetiko bakoitzak Hornidura Kontratuko Baldintza Partikularretan jasotzen diren lotutako instalazioen ekoizpenaren arabera zehaztutako energia elektrikoko (kWh) kantitate bat ordezkatzeko du. Generation kWh Prezioa aplikatuko zaion energia elektrikoko kantitate hori (kWh) Generation kWh Maileguari lotutako hornidura-kontratuen artean banatuko da, Generation kWh Maileguaren titularrak ezarritako esleipen-lehentasunaren arabera.
- c) SOM ENERGIA SCCLk bermatzen dio Kontratugileari Errektore Kontseiluak, Batzar Nagusiak onartutako irizpideak aplikatuz, Generation kWh Prezioa lotutako instalazioek ekoizten duten energia elektrikoak Kooperatibari eragiten dizkion ekoizpen-kostuen arabera hertsiki erabakiko duela, eta prezio horri araudiak ezarritako kostu aratuak, Kooperatibaren kostu orokorrak eta kudeaketa-gastuak ordaintzeko zenbateko egoki eta proportzional bat gehituko zaiola, Baldintza Espezifiko hauen Eranskinean jasotzen diren irizpideak aplikatuz.

Batzar nagusiak ezarritako gidalerroei jarraikiz, Errektore Kontseiluak, urteko ekitaldi bakoitzari dagokion Generation kWh Prezioa onartuko du, SOM ENERGIA, SCCLri lotutako instalazioek ekoizten duten energia elektrikoa sortzeak eragiten dizkion kostuen arabera. Baldintza Espezifiko hauen Eranskinak SOM ENERGIA, SCCLk Generation kWh Prezioa zehazteko kontuan hartuko dituen kostu edo gastuak eta prezioa kalkulatzeko metodoa xehatzen ditu.

Kontratugileak adierazten du badakiela eta onartzen duela aplikatuko zaion Generation kWh Prezioa kontratu honen Eranskinean zehaztutako parametroen arabera zehaztuko dela eta prezio aldakorra izango dela.

Aipatutako parametroen aldizkako determinazioa eta kuantifikazioa, Baldintza Espezifiko hauen Eranskinean ezarritako irizpideak aplikatuz, SOM ENERGIA, SCCLko bazkideen Batzar Nagusiaren eskumenekoa da, hargatik Errektore Kontseiluaren jarduketara zehatzak eragotzi gabe, zeinak Batzar Nagusiaren

kontrolaren eta berrespenaren mende egongo baitira. Eta Kontratugileak adierazten du puntu horiek ezagutzen eta onartzen dituela.

- d) SOM ENERGIA, SCCLren Errektore Kontseiluak behin betiko onartuko du urteko ekitaldi bakoitzeko Generation kWh Prezioa, eta urteko ekitaldiko abenduaren 31n sartuko da indarrean. Hala, egun horretara arte, behin-behinean, Generation kWh Prezioa aplikatuko da, eta, behin betiko prezioarekin bat ez badator, litekeena da berekin ekartzea urteko ekitaldian zehar bazkideari dagokion elektrizitateari jada aplikatutako prezioaren erregularizazioa.

Ondore horietarako, Kontratugileak adierazten du eta onartzen du autoprodukzio kolektiboko sisteman parte hartzeak ez duela esan nahi, inola ere, bazkide mailegu-emaileak eskuratutako ondasun edota eskubideen balio garbia transmititzen duenik, baizik eta elkarrekin hautatutako aukera bat dela, kontsumitutako energia elektrikoaren zati bat SOM ENERGIA, SCCLk zuzenean edo zeharka sustatzen eta operatzen dituen Lotutako Instalazioek ekoiztuko duten iturri berriztagarrietako energia elektrikoaren parekoa izan dadin.

- e) Generation kWh Prezioari eragiten dioten aldaketa guztiak Kontratugileari jakinaraziko zaizkio, aldaketak aplikatzen hasi baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago. Eta, aldaketek prezioaren igoera badakarte, Kontratugileak Kontratua indargabetu ahalko du, komunikazioa jaso ondorengo hamabost (15) egun naturaleko epean, SOM ENERGIA, SCCLri bere asmoa jakinaraziz, Kontratu honetan adierazitako edozein baliabide erabilita. Kontratugileak Kontratua epe horren barruan indargabetzen ez badu, ulertuko da aldaketa onartzen duela.

5. “FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA” IZENeko 7. KLAUSULAREN EGOKITZAPENA

Alderdiek adosten dute Hornidura Kontratuko 7.5. klausula aldatzea, honako paragrafo hau gehituz:

“7.5...” Generation kWh Prezioa kontratatuta dagoenean, Generation kWh Prezioak lehentasuna izango du kontratatutako beste tarifen aldean, baina Generation kWh sistematik datorren kontsumoari (kWh) bakarrik aplikatuko zaio. Generation kWh Prezioa kWh osotan, dezimalik gabe, adierazitako kontsumoaren arabera fakturatuko da.”

SOM ENERGIA, SCCLk Baldintza Espezifiko hauek bere webgunearen (www.somenergia.coop) bitartez Kontratugilearen eskura jarri ditu kontratazioa gauzatu aurretik. Baldintza Espezifiko hauek kontratazio elektronikoko sistema baten bidez sinatu dira eta, kontratazioa burutzean, Kontratugileari euskarri iraunkorreko ale bat helarazi zaio.

ERANSKINA

Nola kalkulatzen da Generation kWh tarifaren prezioa?

Generation kWh proiektuan parte hartzen duten pertsonak dute Generation kWh tarifa kontratatzeko aukera. Tarifa kalkulatzeko, proiektuko instalazioetan elektrizitatea sortzeak eragiten dituen kostuei energia merkaturatu ahal izateko gastuak gehitzen zaizkie.

$$\text{Generation kWh tarifa} = \left[\begin{array}{c} \text{⚡} \\ \text{Proiektuetako} \\ \text{instalazioetan} \\ \text{elektrizitatea sortzeak} \\ \text{eragiten duen kostua} \end{array} \right] + \left[\begin{array}{c} \text{€} \\ \text{Energia} \\ \text{merkaturatzeak} \\ \text{dakartzen gastuak} \end{array} \right]$$

Beraz, Generation kWh proiektuko instalazioekin elektrizitatea sortzeak eragiten duen kostua ez da balio finko bat, proiektuko instalazioen balio-bizitzan zehar aldatzen doa. Balioa arrazoi ezberdinen ondorioz aldatu daiteke: konponketak, mantentze- eta administrazio-kostuak, aseguruak, araudi-aldaketak, eta abar.

Energia sortzeak eragiten duen kostua inbertsioaren amortizazio-kostuaren eta instalazioen operazio-kostuen (mantentze-kostua, sorkuntzaren gaineko zerga, eta operazio- zein kudeaketa-kostuak barne) arabera kalkulatzen da. Energia sortzeko kostua ez dago merkatu elektrikoko prezio-bariazioen mende.

Eta kostu horri **energiaren komertzializazioarekin** zerikusia duten gainerako kontzeptuak gehitu behar zaizkio, besteak beste: karguak eta sarbide-bidesari arautuak, sistema-operadoreari eta merkatu-operadoreari egindako ordainketak, merkaturatzailearentzako marjina eta energiaren erosketari lotutako beste kontzeptu batzuk.

Prezioa kalkulatzeko metodoa, osorik, ohar tekniko honetan (Generation kWh mailegu-kontratuaren I. Eranskina) zehazten da.

Generation kWh prezioa fakturretan aplikatzea

Generation kWh proiektuan parte hartzen duten pertsonak bere garaian egiten duten ekarpen ekonomikoaren arabera akzio-kopuru zehatz bat dute. Mailegatutako 100 € bakoitzeko, akzio energetiko 1 jasotzen dute. Energia-eskubideak ekarpena egin ondoren hamabi hilabete igarotzean sartzen dira indarrean.

Ordutegi-tarte jakin batean (P1, P2...), Generation kWh proiektuak barne hartzen dituen Som Energiaren instalazio guztien sorkuntza akzio energetikoen kopuruaz zatitzen da; eta zenbateko hori parte-hartzaile bakoitzak egiten dituen akzio energetikoez biderkatzen da. Horrela finkatzen dira parte-hartzaile bakoitzaren fakturei aplikatzekoak diren Generation kWh prezioak kWh-ak.

Era berean, kontratu batek ordutegi-tarte jakin batean zehar (adibidez, sakonunean), hilabete horretan esleitutako akzio energetikoen arabera Generation kWh prezioan dagokiona baino energia gehiago erabili badu, kontsumo gehigarria dagokion tarifa estandarra aplikatuz kobratuko zaio. Kontrakoa gertatzen bada, ordea, hau da, ordutegi-tarte jakin batean zehar kontratu batek Generation kWh prezioan dagokiona baino energia gutxiago erabiltzen badu, "soberazko" kWh-ak hurrengo hilerako gordeko dira edo bigarren (edo hirugarren) lehentasuneko kontratuei esleituko zaie.

Hala, soberazko kWh-ak zuzenean Bulego Birtualean kontsulta daitekeen "kWh-en poltsan" metatuko dira. kWh horiek sortzen diren egunetik hamabi hilabete igarotzean iraungiko dira.

Fakturan, **kostaprezioa energiaren zatian aplikatzen da.** Fakturako gainerako kontzeptuak (zergak, kontagailuaren alokairua, etab.) berdin geldituko dira. Hala, aipatutako faktoreen arabera, faktura jakin batean energia-eskubide gehiago edo gutxiago aplikatu daitezke eta bi energia-lerro independente agertuko dira: lerro bat tarifa estandarreko prezioko energiari dagokiona eta beste bat Generation kWh prezioko energiari dagokiona. **Generation kWh energia kWh osotan fakturatzen da, dezimalik gabe.**

Generation kWh proiektuan parte hartzen duten bazkideek beren partaidetzari lotutako kontratu bat baino gehiago izan dezakete eta, Bulego Birtualaren bidez, kWh-ak fakturatzeko lehentasun-ordena zehaztu ahaliko dute. Generation kWh proiektutik datorren energia erabiltzeko, gutxienez, kontratu bat izendatu behar da. Titularraren ardura da Generation kWh energia-eskubideak kontraturen batek jasotzen dituela bermatzea, titular-aldaketak edo kontratu berrien altak ez baitira automatikoki

Generation kWh programarekin lotzen.

KWh-en esleipenari eta ordutegi-tarteen araberako banaketari buruzko informazio gehiago eskuragarri dago ohar tekniko honetan (Generation kWh mailegu-kontratuaren II. Eranskina).